

Gernikako Artea eta Bakearen Nazioarteko III. Topaketa

(Alex Carrascosa eta Ahmadul Haque · Artea eta Bakea · Gernika GogoratuZ)

Irailaren 27, 28 eta 29an, Gernika Foru-hiri zaharretik, demokrazia humanista eta artezaren zorutik eta bere haritzaren inguruan hiritarren eta artisten batzarra (biri)bildu nahi dugu honako eztabaidagaiarekin: **Hiritarron Partaidetza Bake Prozesuetan Artearen Bidez.**

Zapalduen Antzertia eta Forum Antzertia

Lekuko izateaz gain, lekukotasuna emango dugu; ikusleak izateaz gain jokalaria izango gara. Ikusle eta jokalaria aldi berean: *espektaktoreak* (ikusle-aktoreak) Augusto Boalek, **Zapalduen Antzertiaren** eta honen aldagaia den **Forum Antzertiaren** sortzaileak, dioen legez: "Antzertia geure burua aritzen behatzeko daukagun gaitasuna da. *espektaktoreok* geure burua behatzen dugu jarraian jokatzeko; bizitza errealerako irtenbideak entseatzeko ditugu; eta aldi berean, eztabaida politikoaz eta berezko trebetasun artistikoaz gozatzen dugu." Antzerti partehartzaile-mota hauek geure gatazka sozio-politikoak eraldatzeko daukaten aukerak azter ditzagun, **ostegun 27an**, honako aktibistak izango ditugu gure artean, besteak beste: **Birgit Fritz**, Vienan Zapalduen Antzertiaren fundatzailea eta Antzerti honen proiektuen koordinatzailea Kirgizistanen eta Indian; **Iwan Brioc**, Cynefin – Antzertiaren bidezko Komunitate-Aktibismoarako plataformaren zuzendari artistikoa eta aurretiaz, Galeseko Zapalduen Antzerti Nazionalaren zuzendarikidea eta mundu osoan egindako **Antzerti Legegilearen** lehen egitasmo nazionala den 'Rehearsal for Reality – Errealitaterako Saiakuntzaren' egilea; eta **Chen Alon**, 'Wiewpoints – Ikuspuntuak' deritzon Israeldar eta Palestinarren arteko Forum Antzertiaren dinamizatzaile eta antzezlea.

Artibismoa eta Komunitate-Artea:

Ostiral 28a Artibismoaren (aktibismo artistikoa edo artearen bidezko aktibismo politikoa) eta Komunitate-Artearen (komunitatearen onurako artea) arteko muga lausotik igaroko da: Irlandatik **Raymond Watson** etorriko da berriro eta **Shane Cullen**ek aurrenekoz egingo digu bisita. **Raymond** Belfasteko artista da. Gaztetatik IRAko kidea izan zen eta 1978an 7 urtez kartzelaratu zuten, zigor gehiena Mazon, H Block ezagunean, bete zuelarik. 90etatik aurrera, Bake Prozesuekin batera, Raymond Watsonek ahalegin guztiak egin zituen bere komunitatea iraganeko oinazetik sendatzeko. Artearen bidez betiere. Bere artelan pertsonalak direla medio eta auzoa, gazteria batik bat, parte harraraziz. Duela gutxi Derryko Gerraren Aurkako Koalizioak **Shane Cullen** gonbidatu zuen Libanora, iazko udan, Qanan, israeldar bonbardaketaren biktima izan ziren 29 zibilen omenezko eskultura sor zezan. 'Bunker Buster' batek gehienbat emakume eta haur ziren taldearen gordelekua zartatu izan zuen. Paradoxikoa da 'bonba adimendun' honen gidatze-sistema elektronikoak Derryn bertan manufakturatua izan zirela, EEBBek, Ipar Irlandako normalizazio eta 'baketzerako' funtsezko inbertsioztat, ezarria zuten Raytheon enpresan, hain zuzen. Ildo berean, **Maher Abi Samra** artista libanoarrak inbasioaren aldirian filmatutako dokumental labur bezain zirraragarri bat ekarriko digu; bere izenburua, 'Merely a Smell' ('Usain soil bat'), Jean Genet idazle eta aktibista politikoa frantziarraren lanetik hartua da. Panel hau **Ali Messaoudi** Rifeko artibistak osatuko du: bere lanen bitartez Amazighen auzi isilarazia emango digu ezagutzera, harena izan zen gainera airetik lehen bonbardatu zuten herrialdea. Ostean, sortzaile hauekin guztiekin biribilean esertzeko eta hitz egiteko aukera izango dugu.

William Kellyk, Bego Intxaustegik, Mary Modeen-ek eta Anita Glestak osatuko dute arratsaldeko saioa. **William Kelly** topaketa hauen bultzatzailea da. Urtetan mundua ibili du gatazka-guneetako artisten adabegiak sortuz edo garatzen lagunduz, sare oso bat ehundu arte. Aldi berean aborigen eta anglosaxoia, landatar eta urbanoa ere baden mataza australiarraren barnean, dena ematen du, arteaz baliatuz betiere, pertsonen arteko eta inguruarekiko harremanetan indarkeria-kutsu oro sendatu nahian. **Bego Intxaustegi** euskal herritarraren antzera: geure gizarteak baztertu eta hondoratzen dituen denak haren margozko ontzian hartzen dituela ostera ere flotarazteko. **Mary Modeen**, bere serigrafietan, lurrarekin lotzen gaituen emakumeen zuztarrean zeharreko kulturaren transmisioaz mintzo ohi zaigu. Zelanda Berriak Aotearoaren autodeterminazioari uko egiten dion bitartean, Mary, eskoziar natiboa, maoriekin ari da lanean eta haiengandik ikasten digu. Azkenik, **Anita Glesta** instalaziogile newyorktarrak infernua zerutik datorkigula jarraitzen digu gogoratzen; gerraren argiak, argitu baino, bizitza errausten duela: RAFen gerra-argia edo estatubatuar aireko indarrarena Hiroshima gainean –egunotan Gernikako Bake Museoan ere ikusgai–, Nurembergen inoiz ere epaitu ez zuten airetiko genozidioak.

BatzArt eta Berbarbola

Larunbat 29an **Urdaibaiko Artisten Batzarre**kin hasiko dugu eguna. Asanblada honetan artistok bake prozesuari eta normalizazio sozio-politikoari egin diezazkiokegun ekarpenez – hobe bateratuak sakabanatuak baino– eztabaidatuko dugu. Iaz ETAk iragarritako su-etenarekin, kolektibo askok enbragea askatu genuen. 'Guernicatik Gernikara' Artea eta Bakearen lehen topaketan (2003) eta 'Irtenbidea posiblea da' Iruñeko erakustaldian (2004) bageneukan ArtamugarriaK bake prozesuaren eta demokrazia partehartzailearen aldeko ekimenaren hazia ereina. 2006ko udazkenean Gernika Gogoratuz eta ArtamugarriaK taldeok Parte Hartuzekin eta beranduago Bidea Helbururekin kontaktatu eta denok batera **BatzArt** ekimena sortu genuen. Konponbideak aurrefabrikaturik ematen dizkiguten, baietz ala ezetz soilak erantzutera mugatzen gaituzten eta azken batez, herritarrontzat altuegiak diren negoziaketa-mahaietan ez bezala, BatzArt edo Asanblada Sortzailea elkarrizketarako aulkien biribilean zertzen da. Zurezko aulki tolesgarriak, ArtamugarriaKen jatorrizko ideiarekin arabera; aulki tolesgarriak edozelan ere, nonahi elkarrizketak aktiba ditzagun eramangarriak: unean uneko aulkien biribilak Gernikan, Uhartan, Iruñean, Bardeetan eta Larran; etengabe, hileko lehen eta hirugarren ostegunero, Donostiako bulebarrean –**Egin bidea bakeari** ekimena–. BatzArt gure banako burujabetza eta subiranotasun kolektiboaren ariketa zuzen eta errealean datza. **Berbarbola** (ZuhaHitza ekialdean) Gernika Gogoratuzetik gure BatzArt-motari ematen diogun izena da. Horrelaxe, batzarren zoru, sabai eta lekuko iraunkorra den zuhaitza erreskatatzen dugu eta gure Gernikako haritzari esanahi gaurkotu eta premiazkoa ematen diogu, eman ere. Larunbat 29an arratsaldean Berbarbolan parte hartuko dugunok ekarpen 'kreaktibo' eta artezak egingo dizkiogu bake prozesuari, jarrera konstruktibo eta begirunezkoan betiere; eta batzar zibil honetaz haraindi hedatzen den eta hiru eguneko egitasmo hauxe biribiltzen duen are zirkulu handiagoa marraztu egingo dugu, Augusto Boalek, Zapalduen Antzertiaren aldagairik garatuena den eta Berbarbolari berari aplikatuko diogun **Antzerti Legegileari** buruz dionaren ildotik: "Batuetan *espektaktoreon* arazoan irtenbidea euren eskuetan dago, euren gogo eta ahaleginen arabera da; beste hainbestetan ordea, **zapalkuntza legean errotzen da**. Orduan, desio dugun aldaketa buru dezagun, beharrezkoa da legea bera eraldatua edo berdiseinatua izan dadila. Antzerti Legegilean legegilea ez da legearen egilea, baizik eta herritarron eta legearen bitartekoa." Hauxe dugu asmoa: hiritarrok legea legegilearen bitartez egin dezagula, legearen egile aktibo izan gaitzela, gehiagorik ere ez legearen jaso-jasaile pasibo.